

## **KONTROL MOZIOA**

### **ERROLDATZEKO ESKUBIDEAREN JARRAIPENA ETA ERROLDA BETEBEHARREN KONTROLA DELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko abenduaren 9an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Azkeneko urteetan hainbat gizarte eragilek (SOS Arrazakeria, Donostiako harrera sarea, Gurutze Gorria...) eta alderdi politikok (esate baterako, Alderdi Popularra, 2017ko abenduan) salatu dute hiriburuetan errolda faltsuen alokairua pil-pilen dagoela eta egoera sozio-ekonomiko zailean dauden pertsonak direla negozio honen biktima nagusiak.

Kasu hauetan, pisuen jabeek bertan erroldatzeko aukera ematen dute 150-300 euroren truke. Normalean, gela bat alokatzeko kontratu faltsua egiten da, baina erroldatzen den pertsonari ez zaio aukerarik ematen gero pisu horretan bizitzeko. Diru-laguntzak behar dituzten familia edo norbanakoek errolda agiria behar dutenez diru-laguntzen baldintzak betetzeko, horrelako eskaintzak onartzen dituzte.

Gauzak horrela, zaugarritasun egoerak handitu egiten dira, etxebizitza eskubidea espekulazio bihurtzen da eta, gainera, diru publikoaren erabilera okerra egiten da: beharra duen pertsonak errolda agiria izateko kuota bat ordaintzen du hilabetero eta, aldi berean, bizitzeko beste gela bat alokatu behar izaten du. Aldi berean, pertsona hauen bizitoki erreala deklaratu gabe gelditzen da; hau da, bigarren jabe bat dago alokairu bat jasotzen pertsona etxe horretan erroldatu gabe dagoela, eta errolda arautzen duen legedia ez betez.

Oinarrizko gizarte zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak ere kasu hauek gero eta ohikoagoak direla eta zailtasunak dituzten pertsonen egoera negozio bihurtzen ari dela diote.

Donostian taberna edo lokal komertzial batzuetako iragarki tabloietan ohikoa da errolda faltsua eskaintzen duten iragarkiak ikustea eta alokairuz pisuak eskaintzen dituzten web orrialdeetan ere horrelako eskaintzak aurki ditzakegu.

Batzordean interpelazioa erantzun zuen delegatuak aipatu zuen Udaletik ezer gutxi egin daitekeela eta salaketaren bidea aktibatu behar dela. Errolda eskubidea eta hari lotutako betebeharrak udal eskumena izanda, ordea, ezin dugu ulertu Udal Gobernuaren erantzuna “ezer ere ez egitea” izatea eta ardura herritar zein eragile sozialengan jartzea.

Hain zuzen ere, udal ordenantzak eta erreglamenduak betearazteko erabiltzen diren tresna berberak erabil daitezke errolda faltsuaren kasuak detektatzeko: Udaltzaingoa (UCOM), web orrietako iragarkien jarraipena eta errolda faltsuen detekzioa, etab.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hirian erroldatzeko eskubidea bermatzeko neurriak har ditzala, logela edo etxebizitza bat alokatuta duten pertsonak haien bizitoki errealean erroldatuz.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari errolda faltsua diruaren truke eskaintzen dituzten egoerak detektatzeko baliabideak jar ditzala.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostian alokairuak iragartzen dituzten web orrien eta plataformen jarraipena egin dezala, errolda diruaren truke eskaintzen duten iragarkiak detektatzeko eta kasu horien aurrean neurriak hartzeko.

Donostian, 2019ko abenduaren 12an

Olaia Duarte López  
EH Bildu udal taldeko zinegotzia